

UDALETIK

Informazio buletina 7 zk.

AZAROA 2018



Argazkia: KINUKA

2019. URTEKO AURREKONTUAK PARTE HARTU!

Udal Gobernutik 2019ko aurrekontuak lantzen gabiltza abenduaren amaieran aurrekontuok behin betiko onartzeko asmoarekin. 2019ko aurrekontuak 8.437.448,00 eurokoak izango dira (2018an 8.294.678,00 eurokoak izan ziren).

Udal Gobernu honen apustua oinarritzko eta kalitatezko zerbitzuak bermatzen eta mantentzen jarraitzea da. Horretarako, urtero bezala, Udal Gobernuak herritarren ekarpenak, iritziak eta proposamenak kontuan izan ditu urteko plangintza egiterakoan, partehartzea eta gardentasuna bultzatuz, "Lekeitio zeure erara" erakitzeke.

Honetaz gain, 2019. urteko aurrekontuak proposatzerakoan udal gobernu honen irizpideak hurrengo hauek izan dira:

- Azken hauteskunde kanpainen herriarekiko hartutako konpromisoak betetzea eta urtez urte konpromiso horiek betetzeko beharrezkoak diren ekintza/programa/zerbitzuak aurrera eramatea.
- Udal eraikinak baldintza egokietan egoteko eta hobetzeko inbertsioak egiten jarraitzea.
- Herria irisgarriagoa egitea, arazoak sortzen dituzten guneei irtenbidea ematea eta kaleen mantentze eta hobekuntza lanak burutzea.

- Udal Gobernuaren aurrekontuak 2019
- Udal tasen eguneratzea eta udal langileen soldaten igoera
- Sarrerak eta gastuak 2019
- Arropain auzoko losa berria egiten
- Isuntza Arraun elkarteak ACT ligan
- 475 artista aurkeztu dira 30. KALEKAN parte hartzeko
- Ibilaldia Lekeition
- Lekitarrentzako aparkaleku zerbitzuak 2.300 erabiltzaile izan zituen
- Udako balorazioa
- Lekeitio lagunkoia. Proposamenetatik ekintzetara

- Hezkuntza arloan inbertitzen jarraitzea: eskolan eta Iturriotzen inbertsioak, musika eskolan inbertsioak, ikastola eta eskolako ekarpenei igoera proposatuko zaie eta abar.

Beraz, Lekeition erroldatuta bazaude eta adin nagusikoa bazara, **abenduaren 14ra arte, berriz ere, bigarren aukera bat izango duzu** zure ekarpenak Udaleko edozein bulegotan, www.lekeitio.eus web orrialdean, partehartzeko udal email helbidean (partehartzea@lekeitio.eus) edota whatsapp bidez (656 702 508) egiteko. Aurrekontuak osotasunean www.lekeitio.eus web orrialdean dituzu ikusgai.

LEKEITIO ZEURE ERARA *egiteko!*



www.lekeitio.eus



udala@lekeitio.eus



656702508



[@Lekeitio_Udala](https://twitter.com/Lekeitio_Udala)



youtube.com/LekeitiokoUdala



facebook.com/LekeitiokoUdala



lekeitioko
udala

UDAL GOBERNUAREN PROPOSAMENA



Lekeitioko Udalak 2019ko aurrekontu proposamena aurkeztu zuen, azaroaren 19an Ogasun Batzordean. Datorren urterako Udalak 8.437.448,00 euro izango ditu (laz, 8.294.678,00.)

Udal Gobernu honen apustua oinarriko eta kalitatezko zerbitzuak bermatzen eta mantentzen jarraitzea da. Gainera, Udala buru belarri arituko da eta jadanik badabil 2019rako proposatutako inbertsioetatik aparte, beste inbertsio batzuk aurrera ateratzen.

Inbertsio hauen artean, Santa Katalina pasearen laugarren fase bat, Arropaineko losa edo espaloia bukatu, Eliz Atea – gasolindegiko urbanizazioa fase II eta eraikinaren proiektua, Mendieta ontziola, eskola publikoetan segurtasun neurriak lortzeko inbertsioak, San Andres auzoko urbanizazioa bukatu, musika eskolako egoitza berriaren bigarren fasea, kirol instalakuntzetan hobekuntzak, Abaroa jauregian leihoak aldatu, Lekitarrentzat uda sasoian aparkalekuak ziurtatzeko sistema guztiak zabaldu, argiteria publikoaren aldaketa IV. fasea, HAPO,...

Bestalde, Udal gobernuak azken hiru urteetan egin duen bezala, herritarren ekarpenak, iritziak, proposamenak jaso ditu jada eta baita erantzun urrian eta azaroan zehar. Orain bigarren aukera zabalitzen da herritarrek beraien ekarpenak egiteko. Udal gobernuak hauek ere kontuan izan nahi ditu urteko plangintza egitean, partehartzea eta gardentasuna bultzatuz, "Lekeitio zeure erara" eraikitzeko. Udaletik aldizkari honetan 2019ko

udal aurrekontu proposamena azaltzen da.

Ondoren, ekarpenak egin dituzten herritar guztiei aste beteren barruan erantzungo zaie. Udal Gobernuak proposamenak baloratu eta abenduaren azken astean Ogasun Batzordea deituko da.

Abenduaren 20an, arratsaldeko 19:00etan Azkue Aretoan herritarrei aurrekontuen inguruko azalpenak emango zaizkie batzar zabal baten. Bukatzeko, abenduaren 26an Udalak Osoko Bilkura deitzeko asmoa dauka bertan aurrekontuak eztabaidatu eta, ala badagokio, hauek onartzeko. Lekeitioko Udalak egiten duen proposamena ondokoa da. Guztira: 8.437.448,00 euro izango ditu. Udaleko partida batzuk ukiezinak edota alda ezinak dira; pertsonala, herriaren funtzionamendurako gastuak (kale eta udal eraikinen argiteria, ura, seguruak, garbitasuna, etab.) edota Udalak dituen konpromisoak (Lea-Artibai Amankomunazgoko kuota, Garapen Agentziakoa, eskola publikora ekarpena, UEMARA ekarpena, musika eskola, musika banda, etab.).

- Pertsonalaren soldatan %2eko igotzea planteatzen da.
- Herri lanen arloan helburutzat izan dugu herria irisgarriagoa egitea, arazoak sortzen dituzten guneen irtenbidea ematea eta kaleen mantentze eta hobekuntza lanak burutzeta. (zebra bideak, losak, argiteria, baran-

dak, lorategiak, zuhaitzen inausketak eta fumigazioak, kalatxorien eta katuen kontrol kanpainak, lekitarrentzat uda sasoian aparkalekuak ziurtatzeko sistema, eta abar...)

- Herri Antolamendu Plan Orokorrekin aurrera jarraituko da
- Herriaren garapenerako onuragarriak eta inpaktu ekonomikoa duten kirol ekintzak bultzatzen jarraituko da. Udalak besteak beste, mendi martxa, spinning maratokia eta Bizkaiako Kopa Trail antolatu edo lagunduko ditu.
- Aurten ere, Ikusgarri Zine Aretoan egiten den zine eta beste ekintza kulturalen programazioa mantentzeko laguntza jasoko du Zinemazale elkarteak. Urtero bezala Kaleka, Zinebilera, San Pedro eta San Antolin jaiak bultzatu eta sustatu egingo dira.
- Herriko eskola publikoari, ikastolari eta Iturriotz institutoari egiten zaizkien diru ekarpenak igo egingo dira. Datorren urteko Ibilaldia, Bizkaiako Ikastolen jaia lagundu eta babestuko da, "Haratzago"!!!
- Kitto elkartearekin elkarlana bultzatu eta sakonduko da.
- Turismoari begira material berria argitaratuko da.
- Gizarte Larrialdietarako partidak mantendu egingo dira.
- Euskara alfabetatzeko diru laguntzak ematen jarraituko da. Ikasle etorkinentzat errefortzuko euskara eskolen kostua beregain hartzen jarraituko du Udalak. Aek - ko lokala berrizteko proiektua egingo da.
- Web orrialdea aldatu egingo da Udalaren gardentasuna erakutsiz eta partehartzea errazte aldera.
- Isuntza Arraun elkarteari ACT ligan parte-hartzeko laguntza.
- 18 eta 35 urte bitarteko herriko gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak errepikatu eta partida gehituko da. Gazteek erabiltzen dituzten lokalen arautze prozesuari jarraipena emango zaio.
- Lekeitio herritarrekin lagunkoia izateko ekintzak diseinatu eta aurrera eramango dira.

PRESUPUESTOS 2019 ¡PARTICIPA!

El Ayuntamiento de Lekeitio, en comisión de hacienda celebrada el 19 de noviembre de 2018, presentó la propuesta de presupuestos para el 2019 basada también en las aportaciones realizadas por las/los lekitarras. Así el Ayuntamiento contará con 8.437.448,00 euros (8.294.678,00 en 2018). La propuesta apuesta por seguir manteniendo servicios básicos y de calidad. En consecuencia proponemos mantener e incluso, en la mayoría de los casos, aumentar las partidas presupuestarias de las diferentes áreas del Ayuntamiento.

Si estas empadronado/a en Lekeitio y eres mayor de edad, puedes volver a enviarnos tus propuestas hasta el 14 de diciembre, presentándolas en cualquier oficina municipal, a través de nuestra web (www.lekeitio.eus), vía mail partehartzea@lekeitio.eus o whatsapp (656702508). Nos comprometemos que en el plazo de una semana responderemos a tus sugerencias y/o propuestas.

La propuesta de presupuestos 2019 está disponible en su totalidad en la secretaría del Ayuntamiento o en la página web del mismo. Resumiendo contiene:

- Algunas partidas no se pueden modificar tales como personal, gastos de funcionamiento, cuotas a otras entidades (Mancomunidad, agencia desarrollo, escuela pública, UEMA, etc....)
- Se propone una subida salarial del 2% al personal municipal.
- Seguiremos impulsando la accesibilidad en nuestro municipio. Obras de mantenimiento en distintas calles. Campaña de poda y fumigación de árboles. Campaña de control de gaviotas y gatos. Puesta en marcha de un sistema que garantice plazas de aparcamiento a los/as lekitarras en época estival.
- Avanzar en el Plan General de Ordenación Urbana.
- Apostamos por eventos deportivos con retorno económico a los diferentes sectores del municipio. Se organizarán la maratón de spinning, mendi martxa y Bizkaia Kopa Trail Lekeitio.
- Se apoyarán actividades culturales en Ikusgarri de la mano de Zinemazaleak. Trabajar con los grupos culturales para elaborar una agenda cultural plural y diversa que tenga repercusión tanto económica como social en el municipio.
- Se propone aumentar las aportaciones a los centros escolares del municipio.
- Mantener las partidas para ayudas de emergencia social.
- Ayudas a la alfabetización en euskera. Clases de refuerzo para jóvenes migrantes en edad escolar.
- Se mejorará la página web del Ayuntamiento para mejorar y facilitar la transparencia y la participación.
- Se apoyará a Isuntza Arraun Elkarte en su nuevo reto en la liga ACT
- Se mantendrán las ayudas económicas para alquiler de vivienda a jóvenes del municipio de entre 18 y 35 años. Asimismo, se seguirá con el proceso de elaboración de una ordenanza sobre locales juveniles.
- En el departamento de promoción económica se seguirá apostando por la promoción del turismo con nuevo material, apoyo al comercio, ayudas para incentivar el emprendimiento, así como el desarrollo de eventos para la promoción del municipio, entre otras. Y contaremos este año, con un proyecto piloto para fomentar el uso de locales vacíos para promocionar la venta comercial a través de acciones de tipo pop-up, acordes a las nuevas tendencias de marketing.

KIROL ARLOKO INBERTSIOAK

Kirol instalakuntza eta ekipamenduetan ondorengo inbertsioak egingo dira besteak beste:

- Isuntza arraun elkarteko aldageletan obrak.
- Trinketeko frontoian lanak egin hezetasuna kentzeko.
- Trinketeko multikirol gela hobetu, aireztapena hobetuz.
- Kiroldegiko makina berriak.
- Igerilekuko kloroa murrizteko sistema aztertu eta hala badagokio, berria jarri.
- Atletismo pistan berrikuntzak: tartana jarri.
- Basket pista bat plaza baltzean.
- Skate Park-ean inbertsioak egiten jarraitu.



HERRI LANAK

Hurrengo urtean zehar, hainbat proiektu eramango dira aurrera, horien artean, hurrengo hauek:

- Herrian zehar irisgarritasuna hobetu: Plaza ingurua, Agirre Solarte – Sabino Arana, Aldamiz Etxebarria, Eusebio M^a de Azkue, ...
- Zebra bideak margotu.
- Santa Elenako piboteak kendu.
- Argiteri berria jarri (Artolaba, tortola, ...)
- Harbiatx plazako eskilarak konpondu.
- Bizikletentzako bidea hobetu.
- 1888 iturriak margotu.
- Arbazan kotxeen abiadura moteltzeko sistema jarri.
- Parkeko umeen jolasak berritu.
- Ateako Kristo "portaleko" teilatua konpondu.
- Herriko eskaileretan barandauak jarri.



UDAL TASEN EGUNERATZEA ETA UDAL LANGILEEN SOLDATEN IGOERA

Lekeitioko Udalak azaroaren 8an egindako bilkuran, udal tasa eta zergen %2,3ko eguneratzea erabaki zuen. Aldiz, kirol ikastaroen tasak eta egun dauden hobari fiskalak mantendu egingo dira.

2019ko ordenantza fiskalak, Udalak oinarritzko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko beharrezkoak dituen diru-sarrerak bermatzeko erantzukizunetik landuta daude eta, era berean, sortu daitezkeen beste egoera batzuen finantzaketari aurre egiteko, esaterako, udalerrriaren egoera hobetu ditzaketen proiektuak eta inbertsioak egiteko, azken batean, zerbitzu guztiak sendotzeko aurrera pausoak emanez eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

Azken lau urteetan ez da igoerarik egon tasa eta zerga hauetan, gizartearen egoera ekonomikoa dela eta. 2015etik ez dira udal tasak igo, hots, udal gobernu hau lanean hasi zenetik. Gaur egun, egoera ekonomikoa hazkunde fasean dagoen arren, udalaren erantzukizuna da bitarteko

publikoak erantzukizunez kudeatzea. Lekeitioko Udalaren egoera ekonomikoa ona da, baina prest egon behar da hurrengo urteetan izango diren erronkei modu jasangarrian aurre egiteko, eta horrek bultzatu du, hain zuzen, Ordenantza Fiskal hauen eguneratzea proposatzea. Herritarrek geroz eta zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituzte eta honi erantzun egokia eman behar zaio, eta udalerrian egun dugun ongizate maila mantentzeak erakunde publikoen lankidetzaz gain, hiri-kontribuzioa ere eskatzen du.

Hori horrela, udal tasa eta zerga hauek KPI (Kontsumorako Prezioen Indizea) kontutan hartuta, gaurkotzea erabaki da. Hau da, ez da igoera soil bat izango, eguneratze bat baizik. KPI-aren igoera %2,3koa izan da eta

hori izango da, hain zuzen, kontuan izango dena tasak eguneratzekoan. Aipatutako udal tasa hauek urtarillaren 1etik aurrera ezarriko dira.

Udal tasen eguneratze hau, besteak beste, ondorengo hauetan ezarriko da: Ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHGZ) - Hiri ondasunak, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga, zaborren bilketa, kiroldegiko abonua, estolderia, hilerriak, merkatuak eta hirigintzako baimenak.

Udaleko langileen 2018ko soldatak %1,75an igo dira, atzeraeraginezko izaeraz ordainduz

Udal langileen soldatak ere eguneratu egin dira eta 2018ko soldatak %1,75 igo. 2019an, berriz ere %2a igotzea aurreikusten da hurrengo urteko aurrekontuen zirriborroan.

ACTUALIZACIÓN DE LAS TASAS MUNICIPALES Y AUMENTO DE LOS SUELDOS DE LOS/LAS TRABAJADORES/AS DEL AYUNTAMIENTO

En el pleno celebrado en 8 de noviembre se aprobó la actualización de las tasas e impuestos municipales en base al IPC, que es del 2,3%. Por el contrario, permanecerán congeladas las tasas de los cursos deportivos y mantendrá vigentes las bonificaciones fiscales existentes

Las ordenanzas fiscales de 2019 están elaboradas desde la responsabilidad para garantizar los ingresos necesarios que permitan al Ayuntamiento seguir prestando con garantías los servicios básicos y, al mismo tiempo, disponer de financiación para afrontar otro tipo de actuaciones, como in-

versiones y proyectos que contribuyan a mejorar el municipio, en definitiva, avanzar para consolidar todos los servicios y mejorar la calidad de vida de los/las habitantes de Lekeitio.

En los cuatro años anteriores no ha habido ninguna subida por la coyuntura económica, es decir, desde que comenzó a trabajar el actual gobierno municipal. A pesar de que el ciclo económico está en una fase de crecimiento, el Ayuntamiento debe velar por que la gestión de los medios públicos se haga de manera responsable. La situación económica y financiera del Ayuntamiento de Lekeitio es buena, pero tiene que estar preparado para afrontar los retos de los próximos años y afrontar esos desafíos desde una posición sostenible que es la que ha llevado a proponer este incremento de las Ordenanzas Fiscales. La ciudadanía demanda más y mejores servicios públicos y se debe dar respuestas a estas peticiones, y poder mantener el nivel de bienestar.

Es por eso que se ha decidido actualizar las tasas municipales teniendo como base la subida del IPC (Índice de

Precios de Consumo). Dicho de otro modo, no se trata de una subida de tasas, sino de una actualización. El IPC ha aumentado en un 2,3% y es eso, precisamente, lo que se tiene en cuenta para poner al día las tasas e impuestos municipales. Dichas tasas se aplicarán a partir del 1 de enero.


La actualización de dichos impuestos y tasas se verá reflejado, entre otros, en los siguientes aspectos: Impuesto sobre Bienes Inmuebles (IBI), impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, la recogida de basuras, abonos del polideportivo, alcantarillado, los cementerios, mercados y los permisos de urbanismo.

Se han incrementado un 1,75% los sueldos del 2018 de los/las trabajadores/as del Ayuntamiento, a pagar con carácter retroactivo.

Los sueldos de los/las trabajadores/as del Ayuntamiento han aumentado un 1,75% en este 2018, se pagarán con carácter retroactivo. Además, en 2019 volverán a subir otro 2% según se establece en el borrador de los presupuestos del año que viene.


SARRERAK 2019

KONTZEPTUA	%	2019
Zuzeneko zergak (IAE, IBI, ibilgailuak...)	18,41%	1.552.997,00 €
Zeharkako zergak (obrak)	1,19%	100.000,00 €
Tasak eta bestelako zergak (ura, zaborrak, estolderia...)	17,61%	1.485.595,00 €
Transferentzia arruntak (Aldundiaren aportazioa)	60,60%	5.113.356,00 €
Ondare sarrerak (alokairuak)	0,89%	75.000,00 €
Inbertsio errealeen enajenazioa eta bestelako sarrerak (Garajeak...)	0,53%	45.000,00 €
Kapital transferentziak (diru laguntzak)	0,78%	65.500,00 €
GUZTIRA	100%	8.437.448,00 €



GASTUAK 2019

KONTZEPTUA	%	2019
Pertsonal gastuak	39,98%	3.372.888,00 €
Gastu arruntak (argiteri publikoa, erregaiak, kale garbitasuna, kirol instalakuntzen garbitasuna, kanpo zerbitzuak, eraikinen mantenua...)	37,02%	3.123.379,00 €
Interesak	0,13%	11.300,00 €
Transferentzia arruntak (Mankomunitatea, Garapen Agentzia, UEMA, Kirol eta Kultur taldeak, Eskola eta Ikastolari aportazioak).	9,10%	767.475,00 €
Inbertsio errealak	8,54%	720.834,00 €
Kredituen amortizazioa	5,23%	441.572,00 €
GUZTIRA	100%	8.437.448,00 €



INBERTSIOAK

Santa Katalina Pasealekua IV. Fasea (Bide Berdea)	120.000,00 €
Kirol Instalakuntzak (kirol instalakuntzetan hobekuntzak, arraun elkarteko aldagelak, trinketeko frontoian hobekuntzak)	100.000,00 €
Eskola Publikoak	90.000,00 €
Mendieta Ontziola	30.000,00 €
Abaroa Jauregia	30.000,00 €
Musika Eskola II. Fasea	135.000,00 €
Herriko argiteria aldatu IV fasea	22.000,00 €
HAPO	30.000,00 €
Bizikleten ibilbidea I. fasea	35.000,00 €
Merkatu plaza	50.834,00 €



KULTURA ARLOA

Kultur arloan, 2019ra begira, udal gobernu honen asmoa herrian ohitura diren ekintzak mantentzeko eta galduta daudenak berreskuratzeko laguntza ematea da. Esaterako aurten, 2018an, San Juan eguneko Eguzki-Dantza berreskuratu da. Beste alde batetik, bultzada eman nahi zaie jende asko eta adin ezberdinetakoak biltzen dituzten ekintzei.

Aurten ere Zinemazaleekin sinatutako hitzarmenari esker ekintza desberdinak antolatuko dira, musika kontzertuak, hitzaldiak, antzerkia, eta umeentzako ekintza bereziak besteak beste, datoren urtean hau errepikatu egingo da.

Udalak kultur mailan dauzkan bi proiektu handietan aldaketak emango dira, aurten Kalekak 30. edizioa ospatuko du eta Euskal Zine Bileran data aldaketak egongo dira, parte hartzea handitzeko asmoarekin.

2018an herritik kanpoko kultur ekintzetan parte hartzeko aukera ere izan dugu ABAO-rekin batera. 2019ra begira ABAO eta Arriaga antzokiarekin harremanetan jarri ondoren, haien ekintzekin gozatzeko aukera izango dugu.

Aipatu behar den beste gauza bat aurten eskulan tailerrak herriko ume zein nagusiei hainbeste gustatzen zaizkien buruhandiak konpondu dituztela eta 2019an herrian hain maitatua den erraldoi bikoteari beste bikote bat gehituko zaiola kuadrilla handitzeko asmoarekin.

Guzti honetaz aparte, urte osoan zehar musika emanaldiak, erakusketak, antzerkia, gastronomia ekitaldiak eta mota ezberdinetako ekintzak izango ditugu. Eta bukatzeko Jai Batzordera biltzeko gonbidapen zabala egin nahi dugu guztion gustuko jaiak antolatu ahal izateko.

MUSIKA ESKOLA SENDOTZEN

Lekeitioko Udalak eta Musikaia musika elkarteak lankidetzarako hitzarmena sinatu dute bigarren urtez jarraian. Akordio honen bidez, alde batetik Udalak Musikaia musika eskolari diru-laguntza ematen jarraituko dio (25.000€) eta bestalde, Lekeitioko Gaztegunean izango du egoitza Musikaia, aisialdi zerbitzuaren ordutegia eta musika eskolarena bateragarriak direlarik.

Herritarrei zuzendutako musika formakuntza eta zaletasunari bultzada eman nahi zaio, herriko musika tradizioa galdu ez dadin. Musika Eskola, Lekeitioko musika talde ezberdinen harrobia izatea ere lortu nahi da. Hori horrela, Lekeitioko Udalak Musika Eskola lagundu eta sustatu nahi du.

Gazteguneko eraikina musika eskola izateko egokitze lanak egiten hasia da. Horrela 2018. urtean 60.000 euroko inbertsioa egin da, 2019. urteko aurrekontuetan 135.000 euroko partida zuzenduko zaio eta 2020an beste 65.000 eurokoa aurreikusten da.

SANTA KATALINAKO LANAK: IV. FASEA

Lekeitioko Udalak, Santa Katalinako ibilbidearen urbanizazio eta egokitzapenaren proiektuan aurrerapausoak ematen jarraitzen du. Oinezkoentzako bidea hobetu eta ibilbidea osatzeko lanen 4. fase berri honetan, hurrengo urteko aurrekontuetan Udalak 120.000 euroko inbertsioa egingo du pasealekua egiten jarraitzeko.

Aurreko faseetan, herriko eraztun berdea osatzen joateko helburuarekin, pasealekua luzatu eta oinezkoentzako bidea kulunken aurrealdetik eraiki zen, herriaren eta gunen honen arteko bidea burutzeko.

ARROPAIN AUZOKO LOSA BERRIA EGITEN

Arropain auzoan dagoen errepidean losa berria egiteko lanak hasi dira. Oinezkoei lehentasuna ematea bilatuko da bidearen ezker aldean egingo den espaloiarekin, egun dagoen oinezkoen ibilbidea osatuz. Hori horrela, errepidea kale bihurtuko da eta oinezkoak bertatik igarotzea erraztuko da, bide-segurtasuna ziurtatuz.

Arropain auzoa, Ispaster eta Lekeitioko udalerrien mugan dago eta, beraz, lanak bi herrien artean kudeatuko dira. Gainera, obrak iraun bitartean, errail bat itxita egongo da eta semaforoa jarriko da trafikoa bideratzeko. Lanek 4 hilabeteko iraupena izatea aurreikusten da.



ESKOLETAN BERRIKUNTZA LANAK

Ikasturte berri honetan hainbat berrikuntza lan egin ziren eskoletan, ikasgelen irisgarritasuna hobetuz. Ebakuazio plan berriko segurtasun neurriak ziurtatzeko, hainbat lan egin ziren udan zehar. Horien artean, eraikin gorriko argiteria berritzu zen eta koloreetako eskolan barandak egokitu, ateetan "quitamedos" deritzen barrak jarri eta ate batzuen tamaina handitu zen. Gainera, bi eraikinetan, gorrian zein koloretakoan, alarma sistema berria jarri zen ebakuazio sistema hobetzeko.

Bestalde, aurreko ikasturte amaieran eskola eta haur-eskolako patioko jolasleketan ere hobekuntza lanak egin ziren, haur eta nerabeentzako jolaslekuak hobetuz eta segurtasun handiagoa bermatuz.

Datorren urteko aurrekontuetan 90.000€ aurreikusten dira arlo honetan berrikuntza lan hauekin jarraitzeko, ebakuazio eta segurtasun neurrietan hobekuntzak eginez.



KALEETAKO ARGITERIA BERRITZEN

Lekeitioko hainbat gunetan argiteria publikoa berrizteko lizitazioa martxan jarri du Udalak. Erabiltzen den energiari ahalik eta eraginkortasun handiena ateratzeko helburuarekin, kaleetako argiteria egokitu da faroletan led sistema berria jarritz.

Aurreko hilabeteetan herriko hainbat puntutan berriztu zen argiteria, besteak beste Bergara, Atxabal, Kolmenares, Paskual Abaroa, Arranegi eta Ezpeleta kaleetan. Orain, Dendari, Abaroa, Gerrikabeitia, Paskual Abaroa, Beheko kalea, Santo Domingo, Balentin Berriotxoa, Antonio Maria Klaret, San Kristobal plaza, Gamarra plaza, Eliz Atea eta Santa Elena kaleen txanda izango da. Hauek erabiltzen den energia txikitzea eta berriztagarria izatea bilatuko da. Lan hauek otsailean hasiko dira eta 4 hilabeteko iraupena izatea aurreikusten da. Horretaz gain, datorren urtera begira CM12 gunea aldatuko da, hau da, Artolaba, Tortola kaleak eta abar.

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BEHIN BEHINEKO ONESPENA

Azaroaren 31n egindako Osoko Bilkuran, gehiengo osoz, Lekeitioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onarpema eman zitzaion.

Udalerriko lurzorua erabilerak definitu eta arautzen dituen plan honen helburua, Lekeitio modu adeitsuan garatzea da, bertan bizi, lan egin eta aisialdiaz gozatzeko ingurugiroa sortuz. Hau da, bizi kalitatea hobetzea.

Alde batetik, orain indarrean dauden arauak 20 urte baino gehiago dauzkatela kontuan izanda eta bestetik, egindako parte-hartze prozesuetan mahairatu diren beharriarekin, arau horiek eguneratu beharra dagoela erakutsi dutenez, emaitza, dokumentu berri hau idaztea izan da. Gainera, genero ikuspuntua ere sartu egin da dokumentu berri honetan, hau da, araudiak genero ikuspuntu hau ziurtatzeko.

Azaroaren 14an bukatu zen herritarrek alegazioak egiteko epea eta 18 alegazio aurkeztu dira. Orain alegazio hauei erantzuna eman eta onartuak edo ontzat hartzen direnak dokumentuan barneratuko dira. Horrela urte bukaerarako, HAPO berriari behin behineko onespema emango zaio eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera bideratuko da, erakunde honen oniritzia jasotzeko.

FUTBOL ZELAIAREN HOBEKUNTZA LANEN PROIEKTUAREN ERREDAKZIOA

Larrotegiko futbol zelaiak 25 urte betetzen ditu eta Lekeitioko Udalak, futbol taldearekin adostuta, azaroaren 9an futbol zelaiako berrikuntza burutzeko proiektuaren erredakzioa adjudikatu zuen, bi hilabetetan aurkeztuko dutena.

Lan hauek egiteko, Udala lehenengo pausoak ematen hasi da eta, esleitutako proiektu honetan, hurrengo helburuak batzen ditu: zelaiaren tamaina handitzea edo dagoen bezala mantentzea aztertu, belar artifizial berria jarri, argiteriaren berrikuntza eta gaur egun dauden aldagela eta komunen instalakuntzak zaharberritzeko proposamena egin.

Guzti honekin, Larrotegiko futbol zelaiaren berriztatzea bilatuko da, eraginkortasun energetiko handienarekin eta erabiltzaileentzako kalitatezko zerbitzua eskainiz.





LEKEITIOKO SANTO TOMAS AZOKA 2018

Abenduaren 21ean, barikua, ospatuko da eta berrikuntza modura aurten esku pilota partiduak egongo dira frontoian

Lekeitioko Udalak, Lea-Artibai Landa garapenerako Elkartearen laguntzaz, Santo Tomas Azoka ospatuko du datorren abenduaren 21ean. Urtero bezala, ohiko azokaz gain, eskualdeko etxe-abereen erakusketa egongo da ikusgai.

Gitarraren helburu nagusia Lea-Artibai eskualdeko lehen arloko nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleen lana sustatzea eta, aldi berean, haien produktuen kontsumoa bultzatzea da.

Azokan ikusi eta erosi daitezkeen produktu nagusiei dagokienez, ondoko hauek aipa daitezke: hestebeteak, ortuariak, fruta, txakolina, behi eta ahuntz esnearen eratorriak, ezti, ahatekiak, baserriko ogia eta euskal pastela, ardi, behi eta ahuntz gazta, piper txorizeroak, okela, kontserbak ekologikoak, eta baita lore idorrek ere. Produktu freskoak eta sortu berriak izango dira, kasu askotan artisautzako prozesuen bidez ekoizten direnak, eta saltzailea zuzenean ekoizten duen pertsona bera izango da.

Aurten, berrikuntza gisa, arratsaldean Musikaia musika eskolak kontzertua emango du elizan eta **esku pilota partiduak egongo dira Santi Brouard pilotalekuan, Urrutikoetxea eta Aretxabaleta, Irribarria eta Zabaletaren aurka izango dira norgegiagokan.**

UDALETIK: LEKEITIOKO ALBISTEAK BATZEN DITUEN ASTEKARIA

2017ko maiatzaren 18an "Lekitto Barri" albistegia martxan ipini zuen Lekeitioko Udalak. Udalak dituen ohiko informazio kanalak erabiliaz (sare sozialak) herritarrek informazioa eskuragarri izateko formatu berria hasi zen.

Uda sasoi bukatuta, albistegia berriz bueltatu zen izen berriarekin 2017ko urrian: "Udaletik". Ostegunero 20:00etan 5 minututan astebeteko epean herrian egongo diren albisteak, kultur ekintza, kirol jarduera, proiektu eta abarrei buruzko informazioa ikus daiteke "Facebook", "Youtube" eta "Twitter" sareen bidez.

Urte bat besterik ez da igaro Udaletik hasi zenetik eta hilabete guzti hauetan, 98.815 ikusle izan ditu. Orain arte egin diren 60 saioetan, batzaz beste, saio bakoitzak 1.650 ikus-entzule izan ditu.

Bestalde, paperezko "Udaletik" informazio buletin hau ere herritarrek informatuta izateko tresna ere bada.

Guzti hauekin, herriko albiste, kultur ekintza, kirol jarduera eta bestelakoak herritarrengana hurbiltzeko tresnak indartu dira, komunikazio bideak areagotuz.

ISUNTZA ARRAUN ELKARTEA ACT LIGAN

Lekeitioko Udalak eta Isuntza arraun elkarteak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Arraun elkarteak Lekeitiori egiten dion ekarpena kontutan hartuta, Udalak 10.000 euroko diru-laguntza emango dio urtea bukatu aurretik eta 2019an beste 10.000 euro, ACT mailan parte hartzeko beharrezkoak diren prestakuntzak burutzeko.

Honen bidez, arraunaren formazioa eta zaletasuna bultzatu eta lagundu nahi ditu Udalak. Gogora dezagun, aurreko denboraldian egindako esfortzu handiak bere fruituak eman zituela eta Lekittarra traineru onenen artean izango dela hurrengo denboraldian.

Hori dela eta, aukera paregabea izango da Lekeitio-
ren izena eta "Lekittarra" izena ACT Ligan zabaltzeko.

Aupa Isuntza!



475 ARTISTA AURKEZTU DIRA 30. KALEKAN PARTE HARTZEKO

Uztailaren 18tik 21era ospatuko da

Kalekaren 30. edizioa prestatzen hasia da Udala. Proposamenak aurkezteko epea duela aste batzuk itxi zen eta guztira 475 konpainia, artista eta kolektibok aurkeztu zituzten haien ikuskizunak! Euskal Herriko taldeez gain, estatuko eta nazioarteko artista ugari daude horien artean.

Antzerkiak, su ikuskizunak, malabarismoa, tailerrak, ikuskizun ibiltariak edota dantzak aurkitu ditzakegu aurkeztutako proposamenen artean.

Hori bai, guzti hauetatik, batzuk besterik ez dira izango aukeratuak uztailaren 18tik 21era ospatuko den KALEKAN egoteko. Aukeraketa egitea, beraz, ez da batere erraza izango, baina ziur esan dezakegu, urtero bezala punta puntako taldeak izango ditugula 30. Kalekan.



IBILALDIA LEKEITION

Sei hilabete falta dira Ibilaldia berriz Lekeitiara bueltatzeko, baina Azkue ikastola aspalditik hasia da antolakuntza lanetan. Bizkaiko ikastolen jaiak, haien hezkuntza-proiektua ezagutzera eman eta erronka berriei aurre egiteko baliabideak eskuratzea du helburu. 1983an eta 2003an egin ostean, datorren urtean hirugarren aldiz izango dugu Ibilaldia Lekeition.

Lehenengo aldia duela 35 urte izan zen eta aukeratutako leloa "Euskararik gabeko Euskadi, kresalik gabeko itsasoa". Urte batzuk geroago, 2003an, Lekeitiok bigarren aldiz hartu zuen ikastolen jaiak eta "Dzanga geurera" lelopean herriko gune ezberdinak jai giroz bete zituen, 100.000 pertsona batuz! 2019an hirugarren aldiz izango dugu Ibilaldia Lekeition. "Haratzago" leloarekin, maiatzaren 19a izan da jaiak ospatzeko aukeratu den eguna. Haiek azpimarratzen dutenez, "familia zein lagunekin euskaraz ospatzeko eguna" izatea bilatuko dute "ikastola eta euskal kultura Euskal Herriko zirrikitu guztietara zabalduz". Hortaz, 2019ko Ibilaldian denok joango gara haratzago!

HARATZAGO

IBILALDIA LEKEITIO 2019

BERDINTASUNA, DENON KONTUA

Lekeitioko Udalak berdintasunean oinarritutako eta indarkeria matxistarik gabeko gizartearen alde daukan konpromisoa jarraiki, berdintasunaren aldeko jarrekin eta sentsibilizazioa helburu izango duen ekintza ezberdinak antolatuko ditu 2019an zehar, besteak beste: gimnasia emozionala, irakurle kluba, zurrumurru sexisten eta arrazisten inguruko ekintzak, ikastetxeak eta familiak inplikaturik kanpainak egin, haur masaia, etxeko lanak trukatzeko, autodefentsa, jaietan kanpaina berezia, hitzaldiak, tailerrak, Gabon ez sexisten kanpaina, ipuin kontaketa, antzerki ez sexista, protokoloaren jarraipena,...



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

LEKITTARRENTZAKO APARKALEKU ZERBITZUAK

2.300 ERABILTZAILLE IZAN ZITUEN (BALORAZIOA)



Herritarrentzat araututako aparkaleku zerbitzuak 2.306 erabil-tzaile izan ditu aurten. Hauen barne, 2017an zerbitzu honen baimena lortu zutenen %86ak errepikatu egin du oraingoan ere eta aurten 766 baimen berri banatu dira.

Zerbitzuak aurreko urtean izan zuen arrakasta ikusita, aurten auzo gehiago prestatu dira. Gune hauetan sortu diren 132 aparkalekuekin, gutzira Lekeition 370 inguru daude.

Gune bakoitzaren balorazioa egiten badugu:

1. Gunea: Paskual Abaroa etorbidea eta San Juan Talako. Uda guztian zehar egindako ikuskapenen arabera, Paskual Abaroa etorbidean batz bestea, %61,1ean aparkatzeko tokiak libre zeuden. San Juan Talako kalean ere antzera gertatu da, izan ere kontrolen arabera, denboraren %51,9an aparkatzeko lekua zegoen.

2. Gunea: Eusebio Maria de Azkue eta Basoaldea. Kale hauetan egindako jarraipenari dagokionez, E.M. Azkuen

%61,9an aparkatzeko toki libreak aurkitu ziren. Basoaldean berriz, alderantziz gertatu da eta denboraren %52,5ean guztiz beteta egon da gunea eta %47,5ean toki libreekin.

3. Gunea: Agirre Solarte, Zumatzeta, Buenaventura Zapirain eta Otxoa de Urkiza. Egindako ikuskaketen arabera, gune honetako okupazioa handia izan da. Kontuan izan behar da, gune hauetan aparkatzeko leku gutxiago dagoela kaleak laburrak direlako. Gainera, saltoki eta komertzio asko dauden lekua izanda, auto mugimendu handia duten guneak dira hauek. Aparkaleku libre gehien izan duen kalea B. Zapirain izan da, %58,7an autoak uzteko tokiak egon baita. Hori bai, beste kaleekin konparatuz, nabarmena da, gune hau dela aparkaleku librearen portzentaje baxuena duena eta horren erakusgarri da Otxoa de Urkiza, hau izan baita toki libre gutxien egon diren kalea, %37,9an besterik ez.

4. Gunea: Aldamiz Etxebarria eta Letraukua. Aurten gehitu den gune berrietako bat izan da hau eta datu oso positiboak utzi ditu. Aldamiz Etxebarria auzoan egindako jarraipenaren arabera, %69,5ean aparkatzeko tokiak egon da eta, Letraukua-ren kasuan, emaitzak oraindik hobekiak dira, %97,3an egon baita autoa uzteko lekua. Hortaz, gune honetan, tokiak soberan egon da ia kasu guztietan.

5. Gunea: San Antolin. Udan zehar auzo honetan egindako jarraipenak okupazio maila altua erakusten digu, %67,3koa hain zuzen. Abuztuan gainera, okupazio mailak zeharo egon zuen gora eta egun batzuetan %93,8ra arte igo zen.

Laburbilduz, aparkaleku arautuen okupazioari egin zaion jarraipenaren arabera Agirre Solarte, Zumatzeta, Otxoa de Urkiza eta San Antolin guneetan okupazioa altua izan da eta hurrengo urtera begira izan daiteke aparkaleku kopurua handitzea. Aldiz, Aldamiz Etxebarria eta Letraukua gune sortu berrietan, aparkatzeko arazorik ez da egon eta orduaren arabera lekua bilatzea erraza izan da.

Aurtengo gabezia edota behar ezberdinak kontuan izango dira 2019ko zerbitzuan. Gogoratu gainera, aurten atera diren txartelak hurrengo udaldirako ere balioko dutela, beraz, aurten txartela atera duten herritarrek ez dute inolako izapidetzarik egin beharko aparkaleku zerbitzu berezi hau 2019an erabiltzeko.

UDAKO BALORAZIOA

Uda honetan eguraldia lagun izan dugu Lekeition eta eguzki egun asko izan ditugu. Aurten ere bisitari kopuru handia izan dugu herrian. Turismo Bulegoak 17 mila bisitari baino gehiago izan ditu uda guztian zehar, gehienak noski, uztailan eta bereziki abuztuan. Hori bai, aurreko urtearekin konparatuz, turismo bulego zerbitzura jo dutenen kopurua piska bat jaitsi da. Beharbada, teknologia berrien erabilerak informazioa bilatzeko ematen duen erraztasuna izan daiteke horren arrazoietako bat. Bestalde, Itsasargiak mila bisitaritik gora jaso zituen, Marierrotak 500 eta Elizak 2 mila inguru.

Aldiz, Kittok, Lekeitioko merkatarien elkar-teak, udaren balorazio oso positiboa egiten du. Bere presidentea den Eguzkiñe Arrasatek adierazten duenez, "Orokorrean Lekeition jende asko ibili da aurten eta merkataritza oso pozik dago". Hori bai, bere kezka ere erakusten du, izan ere "ezin gara bizi udako salmentekin bakarrik, neguan ere jende gehiago etortzea behar dugu". Honen aurrean "buru belarri gabiltza lanean Udalarekin batera, neguko merkataritza indartzeko helburuarekin".

Ostalaritza ere udaren balorazio oso positiboa egiten dute, aurtengo eguraldia dela eta jende asko ibili dela adierazi baitute.

ISUNTZA HONDARTZA

Aurten, asko izan dira Isuntza hondartzara etorri direnak. Guztira 166.000 erabiltzaile egon dira uda guztian zehar. Aipagarria da 2017ko datuekin alderatuz, aurten erabiltzaile kopurua ia bikoiztu egin dela.

Gainera, hondartzetako dutxen ur kontsumoak behera egin du berriz ere aurten. 2017an erabiltzaileko ia 13 litro erabiltzen ziren, aurten berriz, 7,7 litro. Hau da, erabiltzaile bakoitzak erabiltako uraren %40 aurreztu da.

Era berean, erabiltzaileen artean egindako inkestetan 8,5eko puntuazioa ematen diote Isuntza hondartzari. Gainera bereziki ondo baloratzen dituzte "SEGURTASUNA" eta "ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUA". Azken honen barruan oso estiman dago irisgarritasuna, hala nola, pasarelak edukitzea eta hondartzara alde bietatik sartzeko aukera izatea.





Lekeitio lagunkoia

Sustraietatik

PROPOSAMENETATIK EKINTZETARA

Ekainaren 14an, Lekeitioko lagunkotasun diagnostikoaren emaitzen aurkezpena egin zen Barandiaran Aretoan. Bertan, aurreko hilabeteetan egindako parte-hartze sesio eta inkesten emaitzak azaldu ziren, Lekeitiok, inguruko herrietatik parte-hartze handienetakoa izan zuelarik. "Lekeitioko Lagunkotasun diagnostikoa" egiteko 6 mahai antolatu ziren non 60 herritarrek hartu zuten parte beraien ikuspuntuak eta iritzia eman. Lekittar guztien eskura jarri zen baita diagnostikoa osatzeko inkesta. Guztira 356 inkesta jaso ziren 7.200 biztanle dituen Lekeitioko herrian. Emaitzak www.lekeitio.eus webgunean daude ikusgai.

Lekeitiarren bizitza hobea izateko badago zeregina eta zeregin hauek diagnostiko horretan agertzen dira. Orain **ekintza plana** egitea tokatzen da, herritarrei egunerokotasuna errezago egingo dien **ekintzak zehazteko**. Horretarako, Udalak berriz zabalduko du parte-hartze prozesua, zeina 4 saiotan banatuko den:

Urtarrilak 17: Aire zabaleko guneak eta eraikinak + Garraioa arloak jorratuko dira.

Urtarrilak 24: Etxebizitza + Sareak eta gizarte-laguntza arloak jorratuko dira.

Urtarrilak 31: Enplegua eta partaidetza, Errespetua eta gizarteratzea arloak jorratuz.

Otsailak 7: Komunikazioa eta informazioa + Gizarte-eta osasun-zerbitzuak arloak.

Saioak 17:30tik 19:00etara izango dira Barandiaran Aretoan, antolaketa onerako aurretiaz izena ematea eskatzen da Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, agurtzane-ongintza@lekeitio.eus helbidera idatzita edota 94 603 41 00 telefono zenbakira deituta. Ludoteka -zaintza zerbitzua eskainiko da baita.

Abenduan parte-hartze deialdia zabalduko da!!! Adi beraz!!! Animatu eta parte hartu!!! Zure iritzia garrantzitsua da ta!!!

El 14 de junio en la sala Barandiaran, se presentaron los resultados del diagnóstico de amigabilidad de Lekeitio. En esta presentación, se expusieron las conclusiones derivadas de las sesiones participativas celebradas durante los meses anteriores y los resultados de las encuestas, siendo Lekeitio uno de los pueblos de la zona con más participación. Para hacer el diagnóstico de "Lekeitio-Lagunkoia" se organizaron 6 mesas y se contó con la participación de 60 personas quienes aportaron su punto de vista entorno a diferentes aspectos del pueblo. Además, se puso a disposición de todos/as los/las lekitarras una encuesta para poder igualmente dar su opinión, ampliando así la participación ciudadana. De los/las 7.200 habitantes que tiene Lekeitio, en total se recogieron 350 encuestas. Los resultados se encuentran disponibles en www.lekeitio.eus.

*Todavía se pueden hacer muchas cosas para mejorar la vida de los/las habitantes de Lekeitio y todas estas se recogen en el diagnóstico. Ahora toca hacer el **plan de acción**, para **determinar las acciones** que faciliten el día a día de los/las lekitarras. Para ello, el Ayuntamiento volverá a abrir un proceso de participación ciudadana, el cual se dividirá en 4 sesiones:*

***17 de enero:** Se tratarán cuestiones referentes a edificios y lugares al aire libre + transporte.*

***24 de enero:** Se tratarán cuestiones referentes a vivienda + redes y ayudas sociales.*

***31 de enero:** Se tratarán cuestiones referentes a empleo y participación, respeto e integración social.*

***7 de febrero:** Se tratarán cuestiones referentes a comunicación e información + servicios sociales y salud.*

Las sesiones se celebrarán de 17:30 a 19:00 en la sala Barandiaran. Para una buena organización, se ruega inscribirse con antelación en los Servicios Sociales del Ayuntamiento, en la dirección agurtzane-ongintza@lekeitio.eus o llamando al teléfono 94 603 41 00. Se ofrecerá servicio de ludoteca.

¡En diciembre se abrirá la convocatoria para participar en este proceso! ¡Estate atento/a! ¡Ánimate y participa! ¡Tu opinión es importante!



@Lekeitio_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



udala@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

LEKEITIOKO ALBISTEAK BATZEN DITUEN ASTEKARIA

UDALETIK

EGUENERO 20:00etan

Udaleko sare sozialetan

98.815 ikusle urtean zehar
1.650 ikusle saio bakoitzeko

ALBISTEAK

KULTURA

GERTAKARIAK

AGENDA

KIROLA



lekeitiokoudala